

Esp. Zkia.- KE-2021-04  
E.E.- 2021-00047

**099/2021 ALKATETZA DEKRETUA:**

Larrabetzuko Udaletxean, 2021eko martiaren 4an.

OINARRIA: 2020ko zezeilaren 9an BAOean 2021 ekitaldirako Larrabetzuko Udal Aurrekontu Orokorraren behin betiko onarpena argitaratu egin zen. Horretan Larrabetzuko Baserritar eta Kontsumitzaileen Elkarlanerako Gurpide Elkarteren, G-95587507 IFK zenbakidunaren, aldeko diru-laguntza zuzen nominatibo bat jasotzen da aurrekontuaren aurrekontu partida konkretuan (1623-18001). Hau horrela elkarteak 2021eko zezeilaren 11an udal sarrera erregistroan 377 inskripzio zenbakiarekin dirulaguntzaren eskaria aurkeztu zuen.

OINARRIA: 2021eko martiaren 4ko datarekin udal kontu-hartzailetzak txostena egin zuen.

OINARRIA: Honako honeetan xedatutakoa: Diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorraren 22.2.a) artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorraren 65. Artikuluan.

Honen bidez, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, HAU EBATZI DOT:

LEHENENGOA.- Larrabetzuko Baserritar eta Kontsumitzaileen Elkarlanerako Gurpide Elkarteari (IFK: G-95587507); 36.000,00 euroko diru-laguntzea emongo jako, 1623-48001 aurrekontuaren aurrekontu-partidea zordunduta.

BIGARRENA.- 10 laneguneko epea eman aipatutako elkarteari 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorraren 65. Artikuluan adierazitako betekizunak jasotzen dituen hitzarmena sinatzeko.

HIRUGARRENA.- Sinatuko den hitzarmena oinarri arautzailearen izaerea eukiko dau, eta hemen ezarritakoaren arabera kudeatu, justifikatu eta arautuko da: Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorra.

LAUGARRENA.- Ebazpen honen barri emongo da Udalbatzeak egingo dauen hurrengo bilkuran.

Iñigo Gaztelu Bilbao  
Alkatea

Nire aurrean,  
Behin-behineko Idazkaria